



'Telebisoretik
telebistara' lantegia
izango da Artelekun,
abuztuan eta irailean

■ *Alexis Vaillant arte
kritikaria eta Franck
Larcade komisarioa
dira koordinatzaileak*

Erredakzioa / Donostia

HEDABIDEEN eta hedatzeke mekanismoen inguruko eztabaida piztu nahi du Donostiako Arteleku zentroak *Telebisoretik telebistara* lantegiaren bitartez. Ekolizpen guneak aztertu nahi ditu lantegiak, gaur egungo artearen kokaleku posible gisa, non sorkuntza eta hedapena elkar loturik eta, askotan, aldi berean egiten diren.

Lantegi esperimentalak izango da, multidiziplinarra, eta hamar artista gaztek beren proiektuak egingo dituzte hor, abuztuaren 23tik irailaren 17a arte, hainbat artista eta profesional ezagunen laguntzarekin. Besteak beste, hauek ariko dira: Bertrand Schefer filosofoa, Barcelona Televisió-ko zuzendari Manuel Huerga, Bartzelonako Arte Ederretako Fakultateko irakasle Carles Ameller eta Dan Graham, Pierre Huyghe eta Marcelo Expósito artistak.

Parte hartu nahi duten artistek ekainaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dute beren lanaren inguruko dokumentazioa.